

## LA SOCIOLOGIE EST UN SPORT DE COMBAT

Pierre Carles-ek 2000n egindako filma  
Iraupena: 2'20

Film hau osoki Pierre Bourdieu-ren inguruan da: Frantziako soziologoak egin ikerlanaz. Bi orenez segitzen dugu bere eguneroko lanean. Bere bulegotik Collège de France-era, Val-Fourré-tik fakultateetan barna, konferentzietan.

Filmaren hastapenean, Bourdieu manifestazio batean ikusten dugu. Manifestarien bozeramailea: José Bové. Laborarien konfederazioaren bozeramaileak dio ez direla makurtuko mundializazio-logikaren aurrean. Jendearengandik hurbil egonik, haien arrazoitzeko moldea ulertzeko gisan egiten du lan Bourdieu-k.

Soziologo famatua karrikan doala, miresle batzuek eskertzen dizkiote bere ikerlanak; horiei esker gauzak ulergarri bilakatzen baitira. Eta gizartea ulertuz gero gauzak nola eta nondik alda litezkeen asma daitekeelako.

Irratsaio batera gonbidaturik, *soziologia* hitz handi eta potoloa zer den zehazten du. Ageri da Bourdieu hitz zehatzaren baliatzeari atxikia dela. Hona zer dioen: «soziologoak jendeen izateko manierak ikertzen ditu, usaiazko izateko manierak, erregulariki ikusten direnak. Hortik abiatuz, printzipio batzuk ematen ditu, helburua galdera hori erantzutea delarik: nolaz gizartean gauzak gisa hortara iragaten dira eta ez bestera?».

Kontzeptu batzuk aipatzen ditu:

– *La reproduction sociale*: hala nola gizarte bateko partaideek haiek

ukan duten eredia errepikatzen dutela belaunaldiz belaunaldi.

– Diru-mailako kapitala eta kultura-mailako kapitala: bakoitzak xantza gehiago edo gutxiago badu, bi eragile hauek ez baitira sekula berdin banatuak bi pertsonen artean. Ezberdintasuna sortzen da bakoitzak duen kultura-mailaren kapitalaren arabera, kultura-mailan transmititu zaionaren arabera.

Bourdieu soziologoa entseatzeko da ulertzera nondik datozen jendeen arteko desorekak, ezberdintasunak. Ikerketa modu horri esker bakoitzak aurki dezake bestearen laguntzeko manera.

Soziologia «arte martzialetik hurbil» dela dio, zeren ez baita ukamilo gaiztoen emaiteko egina, baina bai defendatzeko. Esaldi hau, «la sociologie est un sport de combat», Bourdieu-rena da.

Filmak erakusten du Bourdieu-ren teoria mundu guztiari interesatzen zaioela. Prentsaurrekoak hizkuntza guztietan (frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz) emaiten ditu.

Bere obra nagusiak aipatzen zaizkigu: *La misère du monde*. *La domination masculine*.

Idea berri bat azaltzen du hemen. Bourdieu-k dio gizona ere, emaztea bezala, «biktima» dela. Kondenatuta dago gizona dela frogatzera: behar du azkarra izan, gerra egin, gizon itxurari lotzen zaizkion markak («les marques de virilité») erakutsi. Emaztea izatez ez dela berezia azpimarratzen du. Baina

bada gizarteak emazteari emaiten dion definizioa. Bourdieu-k ez du baliatu nahi "emazte-natura" kontzeptua. Erraiten du neska ttipi-ttipitatik hezia dela mutikoa baino "mantsoagoa" izateko, errazago plegatzeko. Hortakotz, zenbakiak erakusten duten bezala, neskek mutikoei baino emaitza hobekiago dituzte ikasketetan.

Emazte/gizon bereizketa aipatzean hauxe dio: haurtzarotik, gizarteko egiturek baldintzatzen dituzte emazteak gizonen peko izaiteko. Hori inkonjuzienteki egiten da. Horren ondorioz, gaur egun, gizonak dira kargu politikoetan, finantzetan; emazteak, aldiz, gizarteari lotutako lanetan: eritxeretan, eskolatan, haurtzaindegietan, etab...

Kazetari batek, galdetzen dio, soziologoaren lana ote den, zorionaren bidea erakustea.

Umilki erraiten du ezin duela halako erantzunik eman, baina zerbait erraitekotan honako hau litzatekeela uros izaiteko bidea: «Bakoitzak egin behar du zerbaitxo inposatu zaizkion mugen gainditzeko; gizartean den determinismo horren hausteko».

Soziologia-kategoria bat salatzen du: soziologo batzuek lan egiten dute ez haien zientziaren zerbitzurako, baina bai politika baten zerbitzuan. Ostiko bat emaiten die CNRSeko soziologoei erranez hauek teoria zientifikoa eskaeraren arabera prestatzen dutela, ostatuan plater bat manatzen den bezala. Teoria jakin baten frogatzeko ikerketa faltsu bat muntatzen dute. Itxura zientifikoari esker "segurtasun ezari" doakionez, adibidez, errepresio polizialaren ideia zilegitzat dute, eta ez erantzun soziala eta kulturala.

Val-Fourré-ko *banlieue* bateko konferentzia batean zinema-aretoa gainezka dago eta gazte batzuk asaldatzen zaizkio. Haiek elkarre-dinamikan lan egiten dute eta haserre dira Bourdieu-ren solasak Jainko batenak balira bezala entzuten direlako. Hurrengo egunean, aldiz, denak haien etxe xokoetan egonen dira Val-Fourré-n ateratzeko beldurrez. Gazte batek soziologoaren mintzaldia mozten du eta luzaz hitza hartzen publikoari mintzatzeko: «Bourdieu c'est pas Dieu, c'est Bourdieu!».

Bestalde, gatazka pizten da gazteen artean. Gazte batek galdetzen dio beraz zendako utzi ote duen elkarre-dinamika. Beste batek, berriz, Bourdieu-ri diotso intelektualen mundu harroputz horrek nazkatzen duela, ez baitute haiek berek egoera bortitza jasaiten.

Bourdieu-k erantzunean: azpimarratzen du berak egiten duen lana (lan intelektuala) gauzak aldatu nahi dituzten gazte horiendako duela egiten, eta huts larria litzatekeela liburu horien bazterteza "intelektual" baten lana delako.

Piztu den eztabaidaz kontent agertzen da, Val-Fourré-n *agitateur* lana bete duela uste baitu, gazteei mintzatzeko parada eskainiz eta gauzen aldatzeko zerbait badela egiteko erakutsiz. Aitortzen du soziologo-lana ikuspegi horrekin egiten duela: determinismo-lege horiek alda daitezkeela erakusteko eta gizarte-mugimendu baten (*un mouvement social*) bultzatzeko.

Amaia Aire  
Gure Irrati-ko zine-saioa